

Arartekoaren 2023R-1664-21 Ebazpena, 2023ko martxoaren 7koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio ez dezala ezohiko diru-sarreratzat hartu herentzian jasotako higiezin baten salmentarekin eskuratutako dirua, egiaztatu egin baita diru hori kexagilearen ohiko bizilekua bizigarritasun-baldintzetan edukitzeko erabili zela.

Aurrekariak

1.- Herritar batek Arartekora jo zuen, ez zegoelako ados Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hartutako erabaki batekin; izan ere, Lanbidek ezohiko diru-sarreratzat jo zuen herentzia batean jasotako dirua, nahiz eta ohiko bizilekua birgaitzeko erabili.

2.- Kexa-espeditentea osatzen duten dokumentuen artean, Lanbideren 2021eko ekainaren 23ko Ebazpena dago, non kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) hileko zenbatekoari eustea erabakitzen baita, honako arrazoi hauetan oinarrituta:

- “No se tienen en cuenta los gastos por obras en su comunidad para minorar los ingresos por Herencia obtenidos en 2018, ya que no se han producido en el momento de percibir dicha Herencia ni en un plazo no superior a 12 meses desde dicho momento” (Ez dira kontuan izango bere erkidegoko obraren gastuak 2018ko herentzian jasotako diru-sarrerak murrizteko; izan ere, obrak ez ziren egin ez herentzia jaso zuen unean bertan, ez eta 12 hilabete baino gutxiagoko epean ere).

Hala, prestazioaren hileko zenbatekoa 392,16 eurotan mantenduko dela adierazten du ebazpen horrek.

3.- Bere kontakizunean, kexagileak adierazi du % 75eko desgaitasun aitortua daukala eta seme adingabearekin osatzen duela bizikidetzaren unitatea, zeinak autismoa baitauka. Halaber, adierazi duenez, desgaitasunagatikoko pentsioa osatzeko jasotzen du diru-sarrerak bermatzeko errenta.

Eztabaidagai diren gertakariei buruz adierazi du 2018an ezohiko diru-sarrerak izan zituela herentzian jasotako higiezin bat saldu ostean (15.660 euro ingurukoak) eta, une hartatik aurrera, Lanbidek hileroko deskontatu diola DSBEtik, ezohiko diru-sarrera gisa, 261 euroko zenbatekoa.

Horren kontra adierazi du higiezina saldu ondoren Lanbideri jakinarazi ziola zenbateko hori bere ohiko etxebizitzaren eraikinean egin beharreko birgaitze-lanen gastuak ordaintzera bideratuta zegoela, beharrezkoa baizen eraikina erabat



zaharberritzea (ataria behera etorrita zegoen, termitak zeuden...; azken batean, egiturazko arazoak zeuden).

Gaineratu duenez, 2021eko maiatzaren 3an, XXX jaunak egindako ziurtagiri bat aurkeztu zion organismo autonomoari (jaun hori Sestao Berri SAko finka-administratzailea eta interesduna bizi den jabekideen erkidegoko administratzailea da¹), eta, bertan, honako hau irakur daiteke: "ha abonado la derrama por obra de rehabilitación que se va a llevar a cabo en el edificio, cuya cantidad es de 17.957,97 euros" (eraikinean egingo den zaharberritze-lanagatikoko derrama ordaindu du, 17.957,97 eurokoa). Ziurtagiri hori aurkeztu zuen, jasotako dirua bere eraikineko birgaiteta-gastuak ordaintzeko erabili zuela egiaztatzeko.

Dena dela, Lanbidek, 2021eko ekainaren 23ko Ebazpenean, DSBEaren hileko zenbatekoari eustea erabaki zuen, eta, hain zuzen ere, horrexek eragin zuen kexa hau irekitzea eta kexagileak, 2021eko uztailaren 30ean, erabaki horren aurka berraztertze errekurtsoa jartzea.

4.- Arartekoan irekitako kexa-espedita osatzen duten eta interesdunak, bere esanetan, Lanbideri aurkeztu dizkion hainbat dokumentu irakurri ondoren, argi geratu da eraikinak birgaitze integrala behar zuela. Zehazki, jabekideen erkidegoaren 2017ko urriaren 3ko eta 2018ko uztailaren 23ko aktetan honako hau irakur daiteke, hurrenez hurren:

"Administrazioak adierazi du 100 euroko derramarekin jarraitu behar dela, urtearen hasieran egiten den urteko bileran beste zerbait erabakitzen den arte. Honako hau da derramaren arrazoa: ataria hondatuta dago, duela ia bi urte behera etorri zelako"².

"BOSGARREN PUNTUA: Galde-eskeak.

Egituraren egoerari buruz galdetu dute, ea laginak egin behar al diren. Eraikinean termitekin arazoak egon direla erantzun da. Ehun urte baino gehiagoko eraikina da, eta zantzuek pentsarazten dute egitura ukituta dagoela; hori jakiteko, baina, txosten tekniko bat eta laginak egin behar dira, eta horrek 9.000 € inguru edo gehiago balio ditu. Aurreko bileran, eraikinaren egoerari buruzko txosten bat egitea onetsi zen, baina ez dute oraindik egin, kontuan ez dagoelako saldo nahikorik"³.

¹ Sestao Berri sozietate publiko bat da: Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak partaidetzaren % 50 dauka, eta Sestaoko Udalak beste % 50. 2005ean sortu zen, Sestaoko hiri-berroneratzea antolatzeke eta, aldi berean, auzokideen erkidegoekin maila sozial eta elkarbizitzakoan jarduteko. Sozietatearen jarduerak hiru ildo nagusi ditu ardatz: udal-etxebizitzetan beste ostatu bat ematea eta udal-etxebizitzak birgaitu eta kudeatzea. Gehiago jakiteko, honako hau kontsultatu: <http://www.sestaoberri.eus/>.

² Jabekideen erkidegoaren 2017ko urriaren 3ko akta.

³ Jabekideen erkidegoaren 2017ko urriaren 3ko akta.



Era berean, jabekideen erkidegoko administratzaileak 2021eko uztailaren 23an idatzitako txostenean ere, beharizan hori zegoela ikus daiteke. Hona hemen txosten hori, esku artean dugun ebazpenerako garrantzitsua da-eta:

“SESTAO BERRI 2010 SA sozietate publikoa da, eta, besteak beste, XXXX erkidegoa hartzen duen Birgaitze Integraleko Eremuaren barruko eraikinen berroneratze soziourbanistikoa du helburu. (Hori dela-eta, enpresa erkidegoaren 2014ko maiatzaren 22ko bilerara agertu zen, eta lankidetzat abiatu zuten bi aldeek, eraikina berroneratzea lortzeko. Gero, 2018ko uztailaren 23an, Sestao Berri 2010 SA sozietatea izendatu zuten finken administratzaile, XXX gerentea izaki ordezkaria. Une hartara bitartean, arazo larriak hauteman zituzten eraikinean; hala nola, XXX solairuko forjaketa konpondu beharra zegoen, termitak zeuden, atariko lurzorua behera etorrita zegoen... Arazoetako batzuk ezin izan ziren konpondu, jabekideen erkidegoak ez zeukalako baliabide nahikorik. Egoera hark agerian jarri zuen eraikinak birgaitze integrala behar zuela, baina, horretarako, erkidegoari baliabide ekonomiko nahikoak emango zizkion dirulaguntzaren bat behar zen.

2018ko uztailaren, auzokideei esan zitzaizkien eraikinak ehun urtetik gora zituela eta termitekin izandako arazoengatik zantzuak zeudela pentsatzeko eraikinaren egitura kaltetuta egon zitekeela. Alabaina, hori jakiteko, txosten teknikoak egin eta laginak hartu behar ziren. Aurreko bileran, eraikinaren egoerari buruzko txosten bat egitea onetsi zen, baina ez zuten egin, erkidegoaren kontuan ez zegoelako saldo nahikorik. Halaber, irailean edo urrian, ahalik eta lasterren, bilera bat antolatuko zen, eraikinaren etorkizunari buruzko erabakia hartzeko,

Argi zegoen eraikinak birgaitze integrala behar zuela, baina bazekiten ezingo zela horrelakorik egin jabeen finantzazio partikularrekin bakarrik. Beraz, laguntzen edo dirulaguntzen deialdiak atera arte itxarotea erabaki zuten.

Esparru hartan, 2019ko maiatzean, finken administratzaileak jakinarazi zuen Barne Eraberritzeko Plan Bereziaren laugarren aldaketa onetsi zutela (2019ko urtarrilaren 18ko BAO) eta aldaketa horren arabera eraikina birgaitu ahalko zela, hiru fatxadak babesteko, zuloak, aurremarkoak, moldurak, fajaketak, komisak, inpostak eta abar mantenduta”.

5.- Gauzak horrela, baieztatu egin dezakegu 2017an jada argi zegoela kexagilea bizi den eraikinean birgaitze-lan handiak egin behar zirela. Lan horiek sekulako ahalegin ekonomikoa eginarazi zioten DSB Ea jasotzen duen bizikidetzaren unitate bati, kontuan hartzen badugu 2021eko maiatzaren 3an 17.957,97 euroko derrama ordaindu behar izan zuela.

6.- Testuinguru horretan, Arartekoak laguntza eskatu zion Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailari, kexa-espeditzeko alderdi batzuk argitzeko. Zehazki, kexa hau ekarri duen ebazpenean aipatzen den denbora-mugari buruzko arazko oinarriaren gaineko informazioa eskatu zion. Hau da, galdetu zion ea Lanbidek zergatik eskatzen duen etxebizitzako birgaitze-lanak urtebeteko gehieneko epean egin daitezela, ezohikotzat jotako diru-sarrerak eskuratzen direnetik zenbatzen hasita, ez baldin badago aurreikuspen hori egiten duen arazko manurik.



7.- Informazio-eskaera horri erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiaren txosten bat sartu zen Arartekoaren erregistro orokorrera, honako hau jasotzen duena:

“GAIA: Erantzuna, (...) andreak aurkeztu duen kexari buruzko 2021eko irailaren 24ko idazkiari. Kexa horretan, kexagileak adierazi du ez dagoela konforme Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diru-sarrerak bermatzeko errentaren hileko zenbatekoari eusteko hartu duen erabakiarekin.

Kexak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2021eko ekainaren 23ko 2021/REV/073600 Ebazpena du oinarri, non prestazioaren hileko zenbatekoa 392,16 eurotan mantentzea erabaki baitzen. Izan ere, 2018ko uztailetik konputatzen ari zaion ezohiko diru-sarreraren konputuari eustea erabaki zen. Hala, honako hau ezartzen du ebazpen horrek: ‘Ez dira kontuan izango bere erkidegoko obren gastuak 2018ko herentzian jasotako diru-sarrerak murrizteko; izan ere, obrak ez ziren egin ez herentzia jaso zuen unean bertan, ez eta 12 hilabete baino gutxiagoko epean ere’.

Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20.1 artikulua ezartzen duenez, DSBEaren hartzaile batek ezohiko diru-sarrera bat jasotzen duenean (adibidez, herentzian jasotako higiezin bat salduta eskuratu dezakeen dirua; 20.3 artikulua), diru-sarrera eskuratu eta hurrengo hirurogei hilabeteetan, diru-sarrera hori konputatuko da, hileko diru-sarrera gisa, diru-sarreraren zenbateko osoa hirurogeirekin zatituta.

Egia da 20.2 artikulua eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren irizpideen 6.12 apartatuak salbuespenak jasotzen dituztela ezohiko diru-sarreraren konputuan. Hala, ohiko etxebizitzan birgaitze-lanak egiteko bideratzen den ezohiko diru-sarreraren zatia, baldin eta lanok beharrezkoak badira, ez da kontuan hartuko.

Alabaina, aintzat hartu behar da zergapekoak urtebeteko epea zuela heredatutako higiezin saldatutakoan eskuratutako dirua inbertitzeko, diru hori jaso zuenetik zenbatzen hasita, zati hori ezohiko diru-sarreraren konpututik kendu ahal izan zedin.

Horri buruz, Arartekoak adierazi du 147/2010 Dekretuaren 20.2.c) artikulua ez duela esaten gastuak hamabi hilabetetik beherako epean egin behar direnik, dirua jasotzen denetik zenbatzen hasita.

Nahiz eta artikulua horrek epeari buruzko eskakizun hori jaso ez, 20.2.b) artikulua egiten du, ohiko etxebizitzarako altzariak edo etxekeko gauzak erosteko gastuei dagokienez. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, analogiaz, 12 hilabeteko epea aplikatu du 20.2.c) artikuluko kasuetarako, esku artean duguna hor sar daitekeelako.

Gehieneko epe hori aplikatuko da, batetik, jasotako diruaren trazabilitatea konplikatu egiten delako, zenbat eta denbora gehiago igaro. Ez dakigu, ez baita egiaztatu, interesdunak heredatutako higiezin saltzeagatik 2018ko ekainean lortu zuen dirua 2021eko apirilean lanak ordaintzeko erabili duen diru bera ote den, bi gertaeren artean denbora gehiegi igaro baita.

Hamabi hilabeteko gehieneko epea aplikatzeko beste arrazoi bat da honako hau: baliteke DSBEaren hartzaile batek, hartzailea den aldi osoan, zenbait gastu edo inbertsio aurre egin behar izatea eta gastu edo inbertsio horiek ezohiko diru-sarreraren



konpututik salbuetsi ahal izatea; hortaz, ezohiko diru-sarreraren berrinbertsioa egiteko muga bat ezarri behar da. Hala egin ezean, adibidez, ezohiko diru-sarrera jaso eta lau urtera sortutako ezusteko gastuak ezohiko diru-sarreratik kendu beharko lirateke. DSBEaren hartzaile baten etorkizuneko gastuak ezin ditzakegu kendu denboran atzera jaso zuen ezohiko diru-sarrera batetik.

Etxebizitza 2018ko ekainean saldu zen, eta zergapekoak salmentaren seirena jaso zuen herentzian: 2018ko ekainean jaso zuen salmentatik zegokion dirua. Bestetik, 2021eko apirilean egin ziren kexagilea bizi den eraikineko birgaitze-lanak. Egiaztatu denez, hamabi hilabete baino gehiago igaro ziren diru-sarrera jaso zuenetik birgaitze-lanak ordaindu zituen arte, eta, hortaz, ezin daiteke kendu 2018an konputatu zitzaion ezohiko diru-sarreratik, kexagileak asmo hori eduki arren.

Ondorioz, 2018an, birgaitze-lanen gastua ez zen erreala edo eraginkorra, eta ez zen hala izan, ia hiru urte igaro ziren arte; hortaz, urtebeteko gehieneko epea gaintitu zenez, ez da egokia gastu horiek ezohiko diru-sarreratik kentzea, kexagileak hala nahi badu ere.

Horrenbestez, gure ustez, zergapekoak DSBE gisa jasotzen zuen hileko zenbatekoari eustea erabakitzeke ebazpena, zeinak ezohiko diru-sarreraren konputua mantentzen baitu, zuzena da, eta zuzenbidearekin bat egiten du.

Lehen azaldutako guztiarengatik, zergapekoak 2021eko uztailaren 30ean ebazpen horren kontra jarri zuen berraztertzeke aukerako errekurtsioa ezetsi da, 2022ko urtarrilaren 20an, 2022/REC/000184 Ebazpenaren bidez”.

8.- Txosten horrekin batera, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailak 2022ko urtarrilaren 20ko Ebazpena ere bidali zuen, zeinaren bidez ezetsi egiten baita kexagileak 2021eko ekainaren 23ko Ebazpenaren kontra (DSBEaren zenbatekoari eustea erabakitzen duen ebazpenaren kontra) jarritako errekurtsioa. Ebazpena irakurrita ikusi dugunez, transkribatu dugun txostenak errekurtsio horretan dauka funtsa, eta, oinarrian, haren translazioa da.

9.- Azaldutako aurrekarietan oinarrituz, eta beharrezkoak diren egitate nahiz oinarriak daudela iritzita, honako gogoeta hauek egiten ditugu:

Gogoetak

Lehenengoa.- Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren helburua da bazterketa-prozesuak edo -egoerak bizi dituzten pertsonei eta familiei ezinbesteko gutxieneko bat bermatzea, oinarritzko premiei erantzun ahal izateko. Era berean, gizarte-bazterketa, lan-bazterketa eta bazterketa pertsonaleko egoerak arintzeko eta herritarren eskubideak baliatzeko behar den baliabiderik ez dutenei gizarteratzen laguntzeko helburua ere badu.



Bizikidetza-unitate bakoitzari helburu horrekin esleitu dakioken prestazioaren hileko zenbatekoa honen arabera kalkulatu da: eskatzailearen bizikidetza-unitatearen ezaugarriak dituzten bizikidetza-unitateentzako prestazioak bermatutako gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoaren eta eskatzailearen bizikidetza-unitateak eskura dituen baliabideen arteko diferentzia.

Bada, gomendio honen xedea da argitzea ea kexagilearen prestazioaren hileko zenbatekoa 392,16 eurotan edukitzea erabakitzen duen Lanbideren ebazpenak zuzenbidearekin bat egiten duen ala ez.

Bigarrena.- Esku artean dugun kasuan, kexagileak desgaitasunagatikotik kotizaziorik gabeko pentsioa osatzeko jasotzen zuen DSBEa.

Testuinguru horretan, 2018an, 15.660 euroko ezohiko diru-sarrera jaso zuen, heredatutako ondasun higiezin bat saldu zuelako. Ordutik, Lanbidek 261 euroko zenbatekoa kentzen dio hileroko, ezohiko diru-sarrera gisa. Ondorioz, kexagileak DSBE gisa jasotzen duen hileko zenbatekoa 392,61 eurokoa da.

Hirugarrena.- Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20.3.c) artikuluan jasota dago herentzian lortzen diren horiek ezohiko diru-sarrerak direla.

Artikulu horrek berak lehenengo paragrafoan xedatzen duenez, diru-sarrera horien zenbateko osoa, zati hirurogei, hileko diru-sarrera gisa zenbatuko da diru-sarrera hori eskuratu ahal izan zen egunaren ondorengo hirurogei hilabeteetan.

Hori horrela, 20.2.c) artikulua ezohiko diru-sarreratzat hartzetik salbuesten du herentzian jasotako diru-sarreraren zati bat; hain zuzen ere, ohiko etxebizitza bizigarritasun-baldintzetan edukitzera bideratzen dena.

Laugarrena.- Lanbidek erakunde honi bidali dion txostenean irakur daitekeenez, honako arrazoi honek oztopatzen du salbuespen hori aplikatzea: "aintzat hartu behar da zergapekoak urtebeteko epea zuela heredatutako higiezina saldutakoan eskuratutako dirua inbertitzeko, diru hori jaso zuenetik zenbatzen hasita, zati hori ezohiko diru-sarreraren konpututik kendu ahal izan zedin".

Hurrengo lerroan esaten du Arartekoak laguntza-eskaeran adierazten duela 147/2010 Dekretuaren 20.2.c) artikulua ez duela eskatzen gastuak hamabi hilabetetik beherako epean egitea, dirua jasotzen denetik zenbatzen hasita.



Orduan, organismo autonomoak onartu egiten du 20.2.c) artikuluan ez dagoela denbora-muga hori, baina adierazten du artikulua horren b) letran badagoela (ohiko etxebizitzarako altzariak edo etxeke guzuzak erostera bideratutako gastuei dagokienez) eta analogiaz aplikatu duela esku artean dugun kasura⁴.

Bosgarrena.- Kontua da *legis* analogia interpretazio-tresna bat dela, zuzenbideak langile juridikoaren eskura jarri duena, arauak egitatezko kasu zehatz bat jaso ez arren antzeko bat arautzen duen kasuetarako, baldin eta kasuen artean arrazoizko berdintasuna badago⁵. Beraz, arauen interpretazio analogikoak arau-gabezia bat egotea eskatzen du.

Bestela esanda, arauen aplikazio analogikoaren bidez, berez barruan hartzen ez duen kasu bati aplikatzen zaio lege bat, eta, hortaz, lege hori jasoko duen kasuak erregulazio espezifikorik ez duenean bakarrik egin daiteke. Horrenbestez, zentzuzkoa da galdetzea ea kasu honetan analogia erabil daitekeen, 147/2010 Dekretuaren 20.2.c) artikulua berriaz aipatzen baitu hizpide dugun egitatezko kasua.

Bestalde, arrazoizko berdintasunik dagoen baloratzean, kontuan hartu behar dira arauaren espiritua eta helburua. Eta, beraz, geure buruari galdetu behar diogu ea gauza bera den ohiko etxebizitzarako altzariak edo etxeke guzuzak erostea eta etxebizitza bizigarritasun-egoeran edukitzeko egin behar diren birgaitze-lanak egitea.

Arartekoaren ustez, egitatezko kasu desberdinak dira. Gainera, esan dezakegu legegileak bereizi nahi izan dituela, artikulua berberaren apartatu desberdinetan

⁴ 20. artikulua. Sariak eta ezohiko diru-sarrerak.

1.- Bizikidetzaren unitateko kideren bati zuzenean egokitzen zaizkion sarietatik eratorritako diru-sarrerak, horiek erabili ahal izan diren egunaren ondorengo hirurogei hilabeteetan, sariaren guztizko zenbatekoa zati hirurogeiren baliokide diren hileroko diru-sarrera gisa konputatuko dira.

2.- Gauza bera egingo da ezohiko diru-sarrerak lortzen direnean, honako zenbateko hauek salbu:

(...)

b) Ohiko etxebizitzaren altzariak edo etxeke guzuzak erostera destinatzen den horien zatia, betiere aparteko baliorik ez badute eta ezohiko diru-sarrerak jaso direnetik hamabi hilabete ez badira igaro.

c) Ohiko etxebizitzaren berrikuntzak egiteko destinatzen den horien zatia, betiere berrikuntza horiek beharrezkoak badira etxebizitzaren bizigarritasun-egoerari eusteko eta apartekotzat jo daitekeen balio bat ez badira.

3.- 2. paragrafoan adierazitako ondorioetarako, ezohiko diru-sarreratzat hartuko dira:

(...)

c) Jaraunspenak eta legatuak.

⁵ Kode Zibilaren 4.1 artikulua: Aplikazio analogikoa bidezkoa izango da, arauok kasu zehatza arautu ez arren, horren antzeko beste bat arautzen dutenean, bi kasuon oinarria berbera bada.

erregulatzen baitira. Bada, hamabi hilabeteko epea ezartzen da etxebizitzarako altzariak edo etxeko gauzak erosteko, diru-sarrera horiek salbuets daitezzen, eta birgaitze-lanek (ezagutza teknikoak dauzkaten eta normalean atzeratu egiten diren langileek esku hartzea behar duten lan handiagoak dira) ez daukate denbora-mugarik.

Aurrekoa esanda, gaineratu beharra daukagu kasu honetan denboran atzeratu izana oso justifikatuta dagoela. Lehenik eta behin, jabekideen erkidegoko administrazioa Sestao Berri sozietate publikoaren esku dagoelako. Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak dauka partaidetzaren % 50, eta Sestaoko Udalak dauka beste % 50: horrek, zalantzarik gabe, atzeratu egiten ditu erabakiak hartzeko prozesuak, zeinak, gainera, berez atzeratzen baitira jabekideen edozein erkidegotan.

Bigarrenik, Sestao Berri sozietateak berroneratze urbanistikoa behar duten eremuetan egiten du lan, eta, eremuotan, egokia izaten da auzokideekin bitartekaritzan aritzea, maila sozialean nahiz elkarbizitzakoan.

Azkenik, kexagilea bizi den higiezinak birgaitze integrala behar zuen, eta hain zen handia, ezen lanok finantzatu ahal izateko laguntzen edo dirulaguntzen deialdietara itxaron behar izan baitute obra egiteko, jabekideen erkidegoko administratzaileak egindako txostenean jasotzen denez (ebazpen honen 4. aurrekarian transkribatu dugu).

Seigarrena.- Lanak egiteko hamabi hilabeteko gehieneko epea ezartzeko arrazoiak txostenaren 8. eta 9. epigrafeetan jasotzen dira, honela:

Gehieneko epe hori aplikatuko da, batetik, jasotako diruaren trazabilitatea konplikatu egiten delako, zenbat eta denbora gehiago igaro. Ez dakigu, ez baita egiaztatu, interesdunak heredatutako higiezina saltzeagatik 2018ko ekainean lortu zuen dirua 2021eko apirilean lanak ordaintzeko erabili duen diru bera ote den, bi gertaeren artean denbora gehiegi igaro baita.

Hamabi hilabeteko gehieneko epea aplikatzeko beste arrazoietako bat da honako hau: baliteke DSBEaren hartzaile batek, hartzailea den aldi osoan, zenbait gastu edo inbertsiori aurre egin behar izatea eta gastu edo inbertsio horiek ezohiko diru-sarreraren konpututik salbuetsi ahal izatea; hortaz, ezohiko diru-sarreraren berrinbertsioa egiteko muga bat ezarri behar da. Hala egin ezean, adibidez, ezohiko diru-sarrera jaso eta lau urtera sortutako ezusteko gastuak ezohiko diru-sarreratik kendu beharko liriateke. DSBEaren hartzaile baten etorkizuneko gastuak ezin ditzakegu kendu denboran atzera jaso zuen ezohiko diru-sarrera batetik.

Funtsean, Lanbidek argudiatu du denbora-muga bat ezarri behar duela ezohiko diru-sarrerak berrinbertitzeko, DSBEaren hartzaile baten etorkizuneko gastuak ezin



daitezkeelako kendu, *sine die*, denboran atzera jaso zuen ezohiko diru-sarrera batetik. Horri, organismo autonomoak gaineratu dio zaila dela jasotako dirua hiru urte igaro ondoren trazatzea, ezin delako zehaztu 2018an higiezina saldutakoan eskuratutako dirua 2021ean birgaitze-lanetarako erabilitako berbera ote den.

Auzia modu abstraktuan hartuta, Arartekoa ados egon liteke Lanbideren baieztapenarekin, esaten duenean DSBEaren hartzaile baten etorkizuneko gastuak ezin daitezkeela kendu, *sine die*, denboran atzera jaso zuen ezohiko diru-sarrera batetik. Alabaina, kasu zehatz honetan, 2017an jada argi zegoen eraikinak birgaitze integrala behar zuela eta horrek gastuak ekarriko zituela, ebazpen honetan transkribatu ditugun jabekideen erkidegoaren aktetan eta Sestao Berri SAko administratzaileak (jabekideen erkidegoko administratzailea denak) txostenean jasotzen den moduan. Beraz, galdetu dezakegu 2021eko derrama zenbateraino den etorkizuneko gastu bat eta ez 2017an edo lehenago aurreikusitako gastu bat, aintzat hartzen badugu duten tamainarengatik eta kexagileari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik atzeratu zirela lanok.

Lanbidek jasotako diruaren trazabilitatea ezartzeko duen zailtasunari buruz, erakunde honek agerian jarri nahi du, kexagilea DSBEaren hartzailea denez, Lanbidek edozein unetan eska diezaiokeela bizikidetza-unitateari, berrikuspen-prozedura baten harira, bankuko mugimenduak erakusteko, organismo autonomoak bizikidetza-unitate horren diru-sarreraren kudeaketa ekonomikoaren berri izan dezan. Bestalde, era berean galdetu dezakegu zer garrantzi eduki dezakeen, DSBEaren ondorioetarako, birgaitze-lanen gastuetan inbertitutako dirua 2018an edo beste urte batean jaso izanak.

Kexagileak heredatutako higiezina saltzean eskuratu zituen ezohiko diru-sarreraren berri emateko betebeharra bete zuen. Eta, gainera, dirudienaren arabera, ezohiko derrama bat aurreikusi zuenez, kexagileak arduraz bete zuen 147/2010 Dekretuaren 12.1.c) artikuluan ezartzen den betebeharra, eta arduraz kudeatu zituen bere baliabideak; are, 2021ean, aurre egin ahal izan zion 17.957,97 euroko ezohiko gastu bati, esan bezala, desgaitasunagatiko kotizaziorik gabeko pentsioa eta pentsio hori osatzen zuen DSBEa izan dituen ohiko diru-sarrera bakarrak.

Zazpigarrena.- Honaino iritsita, egokia da adieraztea ezin dezakegula ahaztu kexagilea % 75eko desgaitasun aitortua duen emakume bat dela eta gertakarien garaian autismodun seme adingabe bat zuela ardurapean.

Ondorioz, erakunde honek berriro azpimarratuko du nahitaezkoa dela administrazio publikoek adingabeen interes gorena aintzat hartzea, haurrei eragin diezaiaketen erabakiak hartu behar dituztenean. Halaxe jaso zuen Arartekoak 2/2015 Gomendio



Orokorrean, "Politika publikoetan adingabearen interes gorena kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman"⁶ izenekoan. Gomendio horretan, laburbilduz, adierazten zen erakunde honen ustez aintzat hartu behar dela, eta egoki neurtu, bizikidetzaren unitatea diru-sarrerarik gabe utziko duen erabaki administratibo batek haurren bizitzan zer ondorio izan ditzakeen, prestazioak eten eta/edo iraungitzeko ebazpena eman aurretik.

lido horretan, gogorazi egin behar da Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak, 1989ko azaroaren 20koak, 3. artikuluan ezartzen dituela adingabeen interes gorenaren printzipio eta eskubide horiek. Testuinguru honetan, Arartekoak adierazi nahi du Haurren Eskubideen Batzordeak (Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa sinatu zuten estatuek hitzarmena betetzen duten jakiteko jarraipena egiteaz eta, hura inplementatu behar den esparruetan behar bezala interpreta dadin, orientabideak emateaz arduratzen den organoak) 2013an 14. Ohar Orokorra onetsi zuela, haurrek beren interes gorena lehentasunez kontuan hartua izan dadin duten eskubideari buruzkoa⁷. Ohar horren IV.A.1.b) puntuan argitzen denaren arabera, interes gorenaren printzipioa errespetatzea eska daiteke haurrei zeharka eragiten dieten erabakietan; hau da, ez bakarrik haiengana zuzendutako administrazio-egintzetan, baita haiengan eragin dezaketenetan ere, nahiz eta egintzon zuzeneko hartzaileak izan ez.

Horri dagokionez, egokia dirudi gehitzea Nazioarteko Tratatu eta Akordioei buruzko azaroaren 27ko 25/2014 Legearen 31. artikuluan ezartzen dela nazioarteko tratatuek lehentasuna dutela kontrako barne-zuzenbideko arauen aurrean eta lege horren 29. artikuluan argitzen dela nazioarteko betebeharrak betetzea agintari autonomikoei ere badagokiela⁸.

Hala ere, adingabearen interes gorenaren funtsezko izaera estatu-mailan ere islatu da; zehazki, Adingabeen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 2.

⁶ Euskadi. Arartekoa. Arartekoaren 2/2015 Gomendio Orokorra, apirilaren 8koa. Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman [online].

Eskuragarri hemen: <https://www.ararteko.eus/es/recomendacion-general-del-ararteko-22015-de-8-de-abril-0>

⁷ Nazio Batuak. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa. Haurren Eskubideen Batzordea. 14. Ohar Orokorra (2013), zeinak ezartzen baitu haurrek eskubidea dutela beren interes gorena lehentasunez kontuan hartua izan dadin (3. artikulua, 1. paragrafoa). [Online eskuragarri]: http://www2.ohchr.org/English/bodies/crc/docs/GC/CRC.C.GC.14_sp.pdf

⁸ Ikusi, zentzu horretan, honako hau: Konstituzio Auzitegia (osoko bilkura). 87/2019 Epaia, ekainaren 20koa, seigarren oinarri juridikoa. ECLI:ES:TC:2019:87. Eskuragarri hemen: <https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/docs/BOE/BOE-A-2019-10915.pdf>



eta 3. artikuluetan, adingabeen interes gorena barnebiltzen eta garatzen baitute, eta interes hori ezartzeko jarraibideak ematen. Ildo horretan, 3. artikulua berariaz ezartzen du botere publikoen jarduketa nazioarteko araudi horretara egokitu behar dela. Eta, bestalde, Konstituzio Auzitegiaren arabera, oinarriko eskubideen interpretazioak, giza eskubideei buruzko itunei jarraikiz, "ezin du alde batera utzi nazioarteko itun eta akordio horiek ezarritako berme-organismoek egiten duten interpretazioa"⁹.

Zortzigarrena.- Kexa honen sustatzaileak prestazioa murriztuta izan duen hilabeteetan bizitako zaugarritasun- eta babesgabetasun-egoera ere kritikagarria da, nazioarteko zuzenbidearen ikusmoldeetik.

Gogoratu beharra dago Europako Gutun Sozial Berrikusiaren (EGSB) 13.1 artikulua gizarte-laguntzarako eskubidea ezartzen duela eta 15. artikulua esaten duela desgaitasunen bat dutenek erabat gizarteratzeko eskubidea dutela¹⁰. Espainian EGSBa 2021eko uztailaren 1ean jarri zenez indarrean, bertako xedapenak barne-ordenamendu juridikoaren parte dira, Espainiako Konstituzioaren 96. artikulua eta Nazioarteko Tratatu eta Akordioaren 27ko 25/2014 Legearen 28. artikulua xedatutakoari jarraikiz. Horrez gain, lege horren 29. artikulua arabera, agintari publiko guztiek nazioarteko betebeharrak zuzen betetzen direla zaindu behar dute dagokien eskumen-esparruan. Horri dagokionez, Konstituzio Auzitegiak, ekainaren 20ko 87/2019 Epaian, betebeharrak horren eskumena agintari autonomikoek dutela adierazi zuen¹¹.

Eskubide Sozialen Batzordeak¹² (Batzordea) 13. artikulua garatu du, eta garapen horrek agerian uzten du prestazio batzuk (hala nola, DSBEa) bere aplikazio-eremuaren barrukoak direla, prestazio horren helburua baita gutxieneko diru-sarrera batzuk bermatzea bestelako diru-iturririk ez duten (hala nola, soldadak, biziarteko errentak, elikagaien pentsioak edo gizarte-segurantzako prestazioak) eta, beraz,

⁹ Ikusi, zentzu horretan, honako hau: Konstituzio Auzitegia (bigarren sala). 87/2019 Epaia, maiatzaren 8koa, bigarren oinarri juridikoa. ECLI:ES:TC:1989:81. Eskuragarri hemen: <https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/es/Resolucion/Show/1287>; eta Konstituzio Auzitegia (lehenengo sala). 116/2006 Epaia, apirilaren 24koa, bosgarren oinarri juridikoa. ECLI:ES:TC:2006:116. Eskuragarri hemen: <https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/es/Resolucion/Show/5718>

¹⁰ Espainiako Estatu Europako Gutun Sozial Berrikusian (EGSB) oinarritzen denez, gutun horretako xedapenak barne-antolamendu juridikoaren atal dira, Konstituzioaren 96. artikulua eta Nazioarteko Tratatu eta Akordioaren 25/2014 Legearen 28. artikulua arabera.

¹¹ Ikus epaiaren zazpigarren oinarri juridikoa. ECLI:ES:TC:2019:87. Eskuragarri hemen: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2019-10915

¹² Europako Eskubide Sozialen Batzordea (EESB) da estatuek Gutuna betetzen dutela egiaztatzeko organoa. Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak hautatzen dituen 15 kide independente eta inpartzialek osatzen dute, sei urteko aldirako, eta behin berriro daiteke.



giza duintasunarekin bat datorren bizi-maila lortzeko baliabiderik ez duten pertsonen¹³. Egia esan, premia-egoera da EGSBak¹⁴ gizarte-laguntzarako eskubidea izateko ezartzen duen baldintza bakarra, eta, beraz, premia-egoera horrek iraun bitartean ordaindu behar dira prestazioak¹⁵. Zentzu horretan, Batzordeak, eskubide hori baliatzeko muga bat justifikatuta dagoela uste duen kasuetan ere, interpretazio murriztailea egin behar dela adierazi du. Hau da, mugaketak legeko oinarri garbia izan behar du, bidezko helburu bat izan behar du, eta gizarte demokratiko batean justifikatuta egon behar du¹⁶.

Era berean, egokia da aipatzea Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren¹⁷ Protokolo Gehigarriaren 1. artikulua (Espainiak 1991ko urtarrilaren 12an onetsi zuen protokolo hori). Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren hitzetan, artikulua horrek aitortu egiten du eskubidea dagoela eskubide subjektibo bat oinarri duten prestazio sozialak bakean gozatzeko¹⁸ eta, eskubidearen gozamina eten ahal bada ere, etenaldi horiek beti egin beharko dutela bat legezkoatasunarekin.

Ilido horretan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak zehaztu duenez, etenaldia babesten duten arauak irigarriak, zehatzak eta aplikatzeko aurreikusgarriak izan behar dute. Aurreikusgarritasunari buruz adierazi du legeak babestu egin behar duela, bai aplikazio arbitrarioen aurrean, bai eragindakoari kalte egiten dioten murrizketen aplikazio hedakorraren aurrean¹⁹.

¹³ Ikusi: *European Roma Rights Centre Bulgariaren aurka*, 48/2008 erreklamazio kolektiboaren funtsari buruzko erabakia, 38. parag. Eskuragarri hemen: [https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{%22sort%22:\[%22ESCPublicationDate%20Descending%22\],\[%22ESCDIdentifier%22:\[%22cc-48-2008-dmerits-fr%22\]}](https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{%22sort%22:[%22ESCPublicationDate%20Descending%22],[%22ESCDIdentifier%22:[%22cc-48-2008-dmerits-fr%22]})

¹⁴ Ikusi: *Finnish Society for Social Rights Finlandiaren aurka*, 88/2013 erreklamazio kolektiboa, 110. eta 111. parag. Eskuragarri hemen: [https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{%22sort%22:\[%22ESCPublicationDate%20Descending%22\],\[%22ESCDIdentifier%22:\[%22cc-88-2012-dmerits-fr%22\]}](https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{%22sort%22:[%22ESCPublicationDate%20Descending%22],[%22ESCDIdentifier%22:[%22cc-88-2012-dmerits-fr%22]})

¹⁵ Ikusi *European Roma Rights Centre Bulgariaren aurka*, 43. Parag., eta XVIII-1 Ondorioak (2006), Espainiari buruzkoak.

¹⁶ Ikusi: *Greek General Confederation of Labour Greziaren aurka*, 111/2014 erreklamazio kolektiboa, 83. parag. Eskuragarri hemen: [https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{%22sort%22:\[%22ESCPublicationDate%20Descending%22\],\[%22ESCDIdentifier%22:\[%22cc-111-2014-dmerits-en%22\]}](https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{%22sort%22:[%22ESCPublicationDate%20Descending%22],[%22ESCDIdentifier%22:[%22cc-111-2014-dmerits-en%22]})

¹⁷ 1. artikulua. Jabetzaren babesa.

Pertsona fisikoek edo moralek eskubidea dute beren ondasunak errespetatu daitezken. Inor ezingo da bere jabetzaz gabetu, onura publikoagatik ez bada eta legean eta nazioarteko zuzenbidearen printzipio orokorretan jasotzen diren baldintzetan.

Aurreko xedapenek ez dute baztertzeko estatuek eskubidea izatea ondasunak interes orokorrekkin bat etorritik edo zergak edo beste ekarpen batzuk edo isunak ordaintzea bermatzeko asmoz nola erabili behar diren arautzeko beharrezkotzat jotzen dituzten legeak indarrean jartzeko.

¹⁸ Ikusi, adibidez: *Romeva Ipar Mazedoniaren aurka*, 2019ko abenduaren 12ko Epaia (lehenengo atala), 38. parag. Eskuragarri hemen: [https://hudoc.echr.coe.int/spa#{%22itemid%22:\[%22001-198885%22\]}](https://hudoc.echr.coe.int/spa#{%22itemid%22:[%22001-198885%22]})

¹⁹ Ikusi: *Centro Europa 7 S.R.L. eta di Stefano Italiaren aurka*, 2012ko ekainaren 7ko Epaia (sala nagusia), 141-143 parag. Eskuragarri hemen: [https://hudoc.echr.coe.int/fre#{%22fulltext%22:\[%22Centro%20Europa%207%20S.R.L.](https://hudoc.echr.coe.int/fre#{%22fulltext%22:[%22Centro%20Europa%207%20S.R.L.)



Ebazpen honetan deskribatutakoa ikusirik, ez dirudi kasu honetan Lanbideren jarduteko moduak legezko oinarri argirik duenik, eta horregatik zaila da neurria justifikatuta egotea. Era berean, ezin dezakegu esan kasu honetan analogiara jotzea aurreikusgarria edo zehatza izan denik.

Gauzak horrela, zalantzan jar dezakegu Lanbideren jokabideak bat egiten ote duen Europako Gutun Sozial Berrikusiaren (EGSB) 13. artikularekin (testu beraren 15. artikularekin lotuta) edo Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren Protokolo Gehigarriaren 1. artikularekin.

Bederatzigarrena.- Esandakoak esanda, baieztatu egin dezakegu analogiara *in malam partem* jotzeak Lanbideri aukera ematen diola hamabi hilabeteko denbora-muga zabaltzeko denbora-muga hori aurreikusita ez daukan egitatezko kasu batera. Hala, esan genezake organismo autonomoak bere lan hermeneutikoan ondorioztatu duela manu horrek idatzita ez dagoen zerbait esaten duela.

Halere, Konstituzio Auzitegiak (bigarren sala) uztailaren 14ko 148/1988 Epaia bosgarren oinarri juridikoan adierazi moduan, analogiara "segurtasuneko arrazoi nabariengatik eta ziurtasun juridikoz" jotzen bada, tentuz eta zorrotz jokatu beharko da²⁰. Eta hori are nabariagoa da DSBEa bezalako eskubide subjektibo batez ari garenean; izan ere, bere xedea da bazterketa-arriskuan edo -egoeran daudenen oinarrizko betebeharrak asetzea.

Nolanahi ere, Arartekoaren ustez, esku artean dugun kasuan ez dago araua analogiaz aplikatzeko oinarrizko premisarik, 147/2010 Dekretuaren 20.2 artikulua berariaz jorratzen baititu birgaitze-lan handietarako aurreikuspenak. Araudi horrek, berariaz, tratamendu berezia ematen die birgaitze-lanei eta ohiko etxebizitzarako altzariak edo etxeko gauzak erosteko ekintzei²¹.

Edonola ere, ezin dezakegu ahaztu langile juridikoak arauen hitzez hitzeko interpretazioa duela abiapuntu bere lan hermeneutikoan. Halaxe xedatzen du Kode

[%20and%20Di%20Stefano%20v.%20Italy,%20%20C2%A7%20139%22,%22documentcollectionid%22:\[%22GRANDCHAMBER%22,%22CHAMBER%22\],%22itemid%22:\[%2201-111399%22\]}](#)

²⁰ ECLI:ES:TC:1988:148. Eskuragarri hemen: <http://hj.tribunalconstitucional.es/es-ES/Resolucion/Show/1089>

²¹ Ikusi *mutatis mutandis*, Auzitegi Gorena (hirugarren sala, 5. sekzioa). 1573/2022 Epaia, azaroaren 28koa. Zortzigarren oinarri juridikoa, bigarren apartatua. ECLI:ES:TS:2022:4336. Eskuragarri hemen: <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/7894c34a778d96bfa0a8778d75e36f0d/20221205>.



Zibilaren 3.1 artikulua, adierazten duenean arauak haien hitz literalen arabera interpretatu behar direla. Bestela esanda, "arazko proposamena argia denean eta hitzen zentzu gramatikalak adiera bakarra duenean, (...), ezin daiteke zentzu gramatikal hori alde batera utzi, ez baita ez bidezkoa, ez onargarria, (...), beste batekin ordezkatzeko; are gehiago, zuzenketa-lan hori administrazioak bere onurarako egiten duenean (...). Aforismo latindarrak horri buruz esaten duen bezala, non funtsezko interpretazio-printzipio juridiko bat laburbiltzen baita: "...*in claris non fitinterpretatio...*", argia dena ezin daiteke interpretatu"²².

Azaldutakoan oinarrituta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako gomendio hau egiten zaio Lan eta Enplegu Sailari:

Gomendioa

147/2010 Dekretuaren 20.2.c) artikulua aplikatzeko, ez ditzala ezohiko diru-sarreratzat jo herentzian jasotako higiezin saldutakoan eskuratutako 15.660 euroak, egiaztatu egin baita diru hori kexagilearen ohiko etxebizitza bizigarritasun-baldintzetan edukitzeko bideratu duela.

Ondorioz, ezohiko diru-sarrera gisa DSBEaren hileko nominatik kendutako zenbatekoak itzul diezazkiola kexagileari.

Azkenik, Arartekoak berriro gogorazi nahi du oso garrantzitsua dela adingabeen interes gorena egoki neurtzea, adingabeen ongizateari eragin diezaioketen erabakiak hartzen direnean.

²² Auzitegi Nazionala (Administrazioarekiko auzien sala, 2. sekzioa). 1670/2013 Epaia, apirilaren 18koa. Laugarren oinarri juridikoa, d) letra. ECLI:ES:AN:2013:1670. Eskuragarri hemen:

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/fc2b861b6ba6e005/20130502>; y Tribunal Supremo (Sala de lo Contencioso-Administrativo, Sección2ª). 4304/2015 Epaia, urriaren 14koa. Lehenengo eta laugarren oinarri juridikoak. ECLI:ES:TS:2015:4304. Eskuragarri hemen:
<https://www.poderjudicial.es/search/openCDocument/47c54a4d73e1a19680ae749ee14dc70a37b8e535c2742508>

